

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure gai definitiboa aukeratzea dezente kostatu zitzaigun. Hasteko, denon artean ideia zaparrada egin genuen eta gero bakoitza bere ideia gustukoena joan zen aukeratzen. Botazioa egin ondoren proiektu honetan gure gaia izango zena aukeratu genuen; hau da, gure kasuan, bizitza osasuntsu bat izateko eta adikziotan ez erortzeko kanpaina bat, adikzioak guretzat osasuntsuak eta beharrezkoak ez direla aldarrikatuz.

Hori izango da gure helburua. Azken batean, guretzat oso proiektu polita izango da gure gorputzaren inguruan jarduten baitu eta gure osasunarentzat txarra den zerbait ekidin nahi baitugu. Gainera, gutako inorrek edo kanpoko inorrek ekidin behar ditu horrelako adikzioak, gauza eta ondorio txarrak ekartzen baitituzte onen aurrean.

Bestalde, guk ere proiektu honetan zehar, arazo hauek dituzten eta eduki zituzten pertsonekin hitz egingo dugu, beraien egoera zein den aztertzeko eta zer soluzio izan ditzakeen ikusteko. Kasu ezberdinak egon daitezke, eta gu horiek guztiak aztertzen saiatuko gara, hau da larriak direnetik beste adikzio txiki eta hain ez larrietara.

Beraz, hau izango da bere garaian adostu genuen bezala aurrera ateratzen saiatuko garen gaia edo proiektua. Ikusiko dugu ea posible den ala ez baina esfortzu asko jarriko dugu hori aurrera ateratzen.